



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

LARRAMENDI IKASTOLA

---

**Ikastetxearen kodea:**

014537

**Data:**

2023/06/13

---





# 1. SARRERA

## **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

### 1.1. Larramendi Ikastolaren ezaugarriak.

0 eta 18 urte arteko hezkuntza eskaintzen dugu. 2022-23 ikasturtean, 1013 ikaslek, 660 familia, 82 irakaslek eta 55 administrazio eta zerbitzu langilek osatzen dute ikastola.

Larramendi Ikastolak batez ere Mungialdeko zein Mungialdeko, Uribe-kostako eta Txorierriko herrietako ikasleak erakartzen ditu. Ikaslegoaren %60a Mungian bizi dira eta %40a inguruko herrietan: Gamiz-Fika, Gatika, Derio, Zamudio, Larrabetzu, Bakio, Plentzia, Gorniz, Lemoiz, ...

### Hezkuntza kooperatiba.

Larramendi Ikastola Mungialdeko hezkuntza kooperatiba da:

- Ikastola gara:

o Herri inizatibaz, herritik eta herriarentzat, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz sortutako ekimena da.

o Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometituri, beste hizkuntza eta kulturetara irekia dagoen ikastetxe euskalduna da.

o Familien ekimenez sortutakoa, seme-alaben heziketaren ardura irakasleekin eta gizartearekin batera bideratzeko asmoz.

o Ikastolako komunitateak bere burua familiatzat du, izaeraren ezaugarri garrantzitsua da eta proiektuaren eraikuntzako zeinutzat dauka ezaugarri hori ikastolak.

o Etengabeko hezkuntza berrikuntzan oinarritutako hezkuntza proiektu berezkoa eta aurreratua dugu.

o Euskal Herriko beste ikastolekin batera Ikastolen Elkartearen kide gara eta Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba osatzen dugu.

- Hezkuntza kooperatiba gara:

o Herri ekimenean oinarrituz, ikasleen gurasoak (ordezkariak, tutoreak) eta laguntzaileek sortutako hezkuntza elkarte gara eta gure egitekoa, gure artean elkar lagunduz eta auzo lanean, seme-alaben gaitasunak garatzea eta bizitzarako ondo prestatzea da.

o Jaiotzetik unibertsitate arteko (0-18) hezkuntza integrala eskaintzen dugu.

o Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen forma juridikoa dugu.

o Irabazi asmorik gabeko erakundea gara.

o Ikasleen hezkuntza inklusiboa eta pertsonalizatua bultzatzen dugu.

o Ikasleek, gurasoek, irakasleek eta laguntzaileek osatutako hezkuntza komunitatea gara. o Hezkuntza komunitateko eragile guztien partaidetza demokratikoa eta lankidetzat sustatzen dugu.

- Mungialdean gaude:

o Naturaz inguratutako leku paregabean kokatuta gaude.

o Mungialdeko eta inguruko herrietako berriazko ezaugarrietan oinarrituz, euskara eta euskal kulturaren biziberritzearen eragile gara eta hezkuntza zerbitzua eskaintzen dugu.

o Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta gaude eta beste ikastetxeekin batera hezkuntza-sistema osatzen dugu.

o Euskal Herrian kokatuz, Europara eta mundura zabalik gaude.

### Kokapena.

Mungialdeko Llon auzoan kokatuta dago, eremu naturalean, hirigunetik 3 kilometrotara. Ia 5 hektarea betetzen ditu. Horretatik, eraikinek 9.000m<sup>2</sup> hartzen dituzte. Gainontzekoa, jolas eta espazio zabalak dira. Egitura horizontala du, pabiloi ezberdinetan bananduta: 11 eraikin nagusi dago 1.400m<sup>2</sup> duen zelai estalia, asfaltatutako bi jolastoki, 6.000m<sup>2</sup>-ko arezko futbol zelaia, atletismo pista eta bi aparkaleku.

### Ikasleak erdigunean.

Larramendi Ikastolaren egitekoaren erdigunea ikasleak dira. Ikasle bakoitzaren interesguneak eta beharrak kontuan hartuz, indarguneak sustatu eta, horietan oinarrituz, ahuleziak gaintzen lagundu nahi dugu. Gure azken helburua seme-alabak helduarorako eta bizitza osorako ondo prestatzea da, beraien bizitza zentzuz eta arduraz gidatzeko, eta bizitza ona eramateko eta ondo bizitzeko gai izan daitezen.

Horretarako,

- Bizitzaren dimentsio guztietan -pertsonala, soziala, akademikoa eta lan mundukoa- eraginkortasunez eta arduraz ekiteko, ondo prestatutako eta oinarri sendoko pertsonak hezi nahi ditugu.

- Pertsona osoaren garapenaren oinarriak -gizabanako-gizartekide eta izadi-kide gisa- era orekatuan finkatu nahi ditugu.

- Euskal Herrian eta munduan bizitzeko euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu dituzten eta euskara ardatz duten pertsona eleaniztunak hezi nahi ditugu.

- Ondorengo ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko eta bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibazioa duten

pertsonak hezi nahi ditugu.

Lehenesten ditugun balioak

Larramendi da ikastolaren izena eta Aita Larramendiren buru argitasuna, zentzu kritikoa, pentsamendu sortzailea, gizarte ekintzailetza eta ardura, euskal zaletasuna eta euskal kulturarekiko konpromisoa eredutzat hartzen ditugu.

- Euskalduntasuna: Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometitutako taldea gara. Euskara da hezkuntza prozesuko eta, oro har, ikastolako bizitzan ahoz eta idatziz erabiltzeko lehen hizkuntza. Era berean, berariazko euskal kulturaren transmisioa eta atxikimendua irakaskuntzaren, eta ikastolako eta ikastolatik kanpoko ekintzen bidez eragingo dira.

- Gizarte ardura: Gizartearen eraldaketa eta garapenean paper garrantzitsua betetzen dugu. Mungia, inguruko herri eta ingurumenarekiko konpromiso sendoa.

- Inklusibotasuna: Giza duintasanaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartzea, pertsona guztiei irekita egotea, eta ikasleen gaitasunak ahal bezain beste garatzea dira gure helburuak.

- Aniztasuna: Aniztasunera irekiak gaude, ezberdintasunaren aurrean tolerantziaz eta elkar ulertzeaz haratago, aldebikotasunaren eraginez elkar aberastea dakarrena.

- Aukera ez konfesionala: Ikuskera espiritualaren eta erlijiosoaren balioa onartzen da eta kide guztien sinesmen erlijiosoak, oinarritzko eskubideak urratzen ez dituzten neurrian, errespetatzen dira, baina inolako erlijiora atxekitu gabe.

- Hezkidetzak: Harreman parekideak sustatzea eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan hezten dugu.

- Erlazioak: Eragile ezberdinen arteko ulermena eta adostasuna erraztu eta konfiantzan oinarrituz, elkar laguntza sustatzen duten erlazioak sustatu nahi ditugu.

- Parte-hartzea: Proiektu partekatua osatzen dugu. Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien ekarpenak bideratuz.

- Elkarlana: Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien artean osagarritasuna bilatuz indarrak batzen ditugu. Talde lana eta esfortzu partekatuak sustatzen ditugu.

- Gardentasuna: Informazio eta komunikazioan, arazoaren aurrean eta kudeaketan.

- Profesionaltasuna: Egiten duguna era egokian eta eraginkortasunez egiten dugu. Etengabeko prestakuntza eta zerbitzurako jarrera.

- Berrikuntza: Etorkizunari aurre hartuz, bide berriak zabalduz, modu irekian, malgutasunez, guztion artean eraikitzen ditugu.

- Erantzukizuna: Partekatua, bakoitzak bere esparruan. Adosten ditugun helburuen eta egiten ditugun ekintzen arteko koherentzia. Barnera eta kanpora begirako ardura eta sinesgarritasuna.

## Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

### GAILUAK

#### IKASLE

HH 4-5: 12 Tablet. Android. Samsung A7

LH 1: 24 Chromebook. Bi gelen artean partekatzeko.

LH 2: 25 Chromebook. Hiru gelen artean partekatzeko.

LH 3: 50 Chromebook. Hiru gelen artean partekatzeko.

LH 4: 48 Chromebook. Hiru gelen artean partekatzeko.

LH 5: 74 Chromebook. Ikasle bakoitzak berea, ikastolan.

LH 6: 84 Chromebook. Ikasle bakoitzak berea, ikastolan.

DBH: Ikasle bakoitzak Chromebook bana

BATXILERGOA: Bakoitzak bere gailua ekartzen du. Ez dira ikastolakoak.

#### IRAKASLE-LANGILEAK

HH 1.zikloa: Eramangarri 1. WINDOWS sistema.

HH 2.zikloa: 8 eramangarri (ACER), WINDOWS sistema.

LH: 21 eramangarri (ACER), WINDOWS sistema.

DBH-BATXI: 30 Chromebook.

ORIENTAZIOA: 3 eramangarri eta 2 mahai-gaineko. WINDOWS sistema.

ZUZENDARITZA Pedagogikoa: 3 Eramangarri, WINDOWS sistema.

ADMINISTRAZIOA: 5 mahai gaineko, WINDOWS sistema. 4 eramangarri, WINDOWS sistema.

#### GELAK

HH 1.zikloa: Proiektore bat

HH 2.zikloa: 5 Arbel digital+ 5 proiektore + Telebista 1

LH 1-2-3: 3 Display interaktibo +6 arbel digital + 6 proiektore.

LH 4-5-6: 9 arbel digital + 9 proiektore.

DBH: 9 Display Interaktibo + 3 proiektore + 3 arbel digital + 3 mahai gainekoak.

BATXILERGOA: 4 Proiektorea + 4 Arbel digitala+ 4 Mahai-gaineko ordenagailu

GELA BEREZIAK HH-LH: 3 proiektore + 3 arbel digitala.

GELA BEREZIAK DBH-BATXI 5 Proiektore + 2 arbel digital+ 2 mahai-gaineko + 3 eramangarri.

IKT GELA: 27 mahai gaineko+ Proiektore 1.  
TUTORITZAK.  
HH 1.zikloa: 2 mahai gaineko +2 inprimagailua  
.HH 2.zikloa: Mahai gaineko 1 + inprimagailu 1. WINDOWS sistema.  
LH: 4 mahai gainekoa + 3 inprimagailua. WINDOWS sistema.  
DBH-BATXILERGOA. 6 mahai gaineko + 3 eramangarri +3 inprimagailu. WINDOWS sistema.  
BESTELAKOAK 2 fotokopiagailu Zuri Beltza Fotokopiagailu 1 kolorez 30 chromebook botikin 2 3D inprimagailu

#### KONEKTIBITATEA.

INTERNET: Zuntz optikoa, 600/600 Mbps lan egiteko eta 300/300 badaezpadako edo babeseko bat.

FIREWALL: Fortigate 61F. 2 Errendimendu altuan (HA).

ZERBITZARIAK: 3 (2x HP Proliant + 1x HP Prodesk). Windows server.

Kable bidezko Sarea: 1Gbps / Ethernet.Bi sare;IKT gela eta nagusia.

WIFI: 34 Unifi AP-ak. 5 sare.

PLATAFORMA eta ZERBITZU DIGITALAK.

ALEXIA: Kudeaketa akademikoa eta administrazioa.

SAIOKA DBHn eta BLINK LH-n.

GOOGLE SUITE: komunitate guztia.

Mantenua Kanpoko enpresa (HSI). IKT matxurak eta mantenua.

IKT arduradunak Chromebook eta Alexiaren kudeaketa eta mantenua.

Kanpoko enpresa, VoIP eta Firewall. (SARENET).

I

#### Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeke eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturen eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek eragin pertsonala eta soziala izan du. Pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenean izandako eraginak eta harremanatzeko erak hausnarketa etikoa ere behar du, ikasleen konpetentzia digitalarekin garatuko dena ikas-irakaskuntza egoeren bidez.

Era berean, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorri.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Hortaz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietara egokitzeko, ikasleek XXI. mendeko konpetentziak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleek ikas-irakaskuntza praktika eraginkoragoak bideratzeko. Horregatik, ikastolatan egiten diren hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarriko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik zentzua.

Bestalde, COVID 19ko pandemiak eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko

Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleen eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

#### IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du", hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoerentarako Kontingentzia Planak ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala bermatuko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetentzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun

non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitaliki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai ikas-irakaskuntza prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan eta urteko planetan integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren eta Urteko Plan Orokorren parte den tresna izango da.

#### IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOPEdagogiko Baten BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo ikas-irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak hezteko baita irakasleon zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikrokultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten konpetentziak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikaskuntzaren kontzeptzioa. Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big data, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaskuntza praktikak teknologien beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologien ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren eta teknologien arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta. Adituen ustez, irakaskuntza praktikak teknologien beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologia berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculum inplementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu "IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan" proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurteraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

## Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarateak izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure digitalizazio barzordearekin elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean plana diseinatuko du. Gure digitalizazio lan-taldean IKT dinamizatzailearekin batera zuzendaritza taldeko kide bat zehaztu da, Zuzendari pedagogikoa. Pertsona honek mentoreak eskeinitako informazioa zuzendaritza talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiekturen buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izango den. Proiektuaren planifikazioari dagokionean, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskainitako laguntza ete ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia

.Urrian zehar eta "Selfie for School" tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen informazioa jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko diagnosi bat lortuta.

2 - Analisia.

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako diagnostikoen analisiari ekingo zaio. Horrela digitalizazio lan-taldeak zuzendaritza taldearekin, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratsuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak.

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, digitalizazio lan-taldeak zuzendaritza taldearekin batera plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealek izan beharko dute.

4 - Ekintzak.

Otsaila eta martxoa bitartean, digitalizazio lan-taldeak zuzendaritza taldearekin batera, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena.

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskainitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea.

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

## Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren helburuen garapenerako ezinbestekoak dira zehaztasun maila konkretuago eta estrategikoak diren Proiektu eta Planak garatzea. Unean uneko beharren arabera eraikitzen diren eta izaera aldakorra duten proiektu estrategikoak: Hizkuntza Proiektua, Bizikidetzeta Plana,

Digitalizazio Plana, Aniztasunari erantzuteko Plana... Proiektu guzti horiek eguneroko funtzionamendu pedagogikoa zehazteko, kudeaketarako prozesuak definitzeko erreferentziak dira eta ikasturteko planean eta memorian helburu espezifikoetan izango dute isla. Digitalizazio plana ikastolaren hezkuntza proiektuaren zehaztapen maila bat da eta ikastolaren plan estrategikoetan integratuta egongo da, izan ere, Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoetan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da zehaztasun gehiagorekin, ikasturteko digitalizazio planarekin lotutako helburu espezifikoak, ekintzak eta baloraziorako adierazleak identifikatuz.

Digitalizazio Planaren jarraipena urteko planean egingo da adierazleen bitartez eta ondo egindakoak, hobetu beharrekoak eta lehentasunak identifikatuz ikasturte bakoitzaren bukaera. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du.

Ikastolako Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritza eta proiektu arduradunen jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du ere komunitate osoaren bidez.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

### ERABILITAKO DIAGNOSTIKORAKO TRESNA ETA PARTEHARTZAILEAK

Ikastolaren egoera aztertzeko SELFIE for School tresna erabili dugu. 2022/10/17-2022/11/04 data tartean zuzendaritzak, irakasleek eta ikasleek diagnostikorako galdetegiak bete zituzten. Selfie tresnak baliatutako Ikastolako Selfie Txostena erabili dugu indarguneak eta ahuleziak aztertzeko eta ikastolako garapen digitalerako helburuak zehazteko.

### PARTE HARTZEA.

LH Zzuendaritza %100 (1/1); Irakasleak %100 (23/23) ; Ikasleak, LH5-LH6 mailakoak, %98 (155/158)

DBH Zzuendaritza %100 (1/1); Irakasleak %91 (20/22) ; Ikasleak %95 (322/338)

BATXILERGOA Zzuendaritza %100 (1/1); Irakasleak %110 (11/10) ; Ikasleak %100 (84/84)

### EMAITZA OROKORRAK (0-5-ko eskala)

LH.

2tik behera: EBALUAZIO JARDUERAK eta ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

3-4 biitartean: LIDERGOA, KOLABORAZIOA, PEDAGOGIA LAGUNTZAK eta BALIABIDEAK, PEDAGOGIA IKASGELAN APLIKATZEA, IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALA.

4tik gora: AZPIEGITURAK

DBH.

3-4 bitartean: EBALUAZIO JARDUERAK, ETENGABEKO PRESTAKUNTZ, LIDERGOA, KOLABORAZIOA, PEDAGOGIA LAGUNTZAK eta BALIABIDEAK, PEDAGOGIA IKASGELAN APLIKATZEA, IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALA.

4tik gora: AZPIEGITURAK.

BATXILERGOA.

2-3 tartean: EBALUAZIO JARDUERAK, ETENGABEKO PRESTAKUNTZ, LIDERGOA, KOLABORAZIOA, PEDAGOGIA IKASGELAN APLIKATZEA, IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALA.

3-4 tartean: PEDAGOGIA LAGUNTZAK eta BALIABIDEAK eta AZPIEGITURAK.

### ETAPA BAKOITZEAN IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK eta AHULEZIAK, SELFIAREN GALDERAK KONTUTAN IZANIK

LH

#### INDARGUNEAK

- Egile eskubideei eta erabilera lizentzia buruzko arauak.
- Gure ikastolan, teknologia digitalak erabiltzen ditugu beste erakundeekin elkarlanean aritzerakoan.
- Gure ikastolan, azpiegitura digitalak irakaskuntza eta ikaskuntza babesten ditu teknologia digitalen bidez.
- Gure ikastolan, irakaskuntzan erabiltzeko gailu digitalak daude.
- Gure ikastolak laguntza tekniko du teknologia digitalekin suertatzen diren arazoak konpontzeko.
- Gure ikastolan, datuak babesteko sistemak daude.
- Gure ikastolan gailu digitalak daude, ikastolarenak dira edo ikastolak kudeatzen ditu, eta ikasleek behar dituztenean erabil ditzakete.
- Gure irakasleek hezkuntzako online baliabideak bilatzen dituzte.
- Teknologia digitalak erabiltzen ditugu ikastolarekin lotutako komunikazioan.

#### AHULEZIAK

- Irakasleekin eztabaidatzen dugu teknologia digitalekin irakastearekin lotuta dauden EPP beharrez.
- Gure ikastolan, azpiegitura digitalak irakaskuntza eta ikaskuntza babesten ditu teknologia digitalen bidez.
- Gure irakasleei laguntzen diegu teknologia digitalekin irakastearekin lotutako bizipenak hezkuntza- komunitatearekin partekatzen.
- Gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko.
- Gure irakasleek ikasleek diziplinarteko proiektuetan parte-hartzea sustatzen dute teknologia digitalak erabiliz.
- Gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleen trebetasunak ebaluatzeko.
- Gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleei atzeraelikadura (feedback) egokia emateko.
- Gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleek haien ikaskuntzaren gainean hausnar dezaten.
